


ZEAR

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

192n. zenbakia/urterilla
1995



**BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE**



**ORREAGA'TIK
NAPAR-ERRIAN ZEAR
DONEJAKUE BIDEA
ERTI-LANEZ BETEA**

EUSKERAREN BATASUNA ETA EUSKALKIEN INDARRA

(20 urte aurretik idatziak)

Orañ arte euskalkiak izan dira

Euskaeraren indarra
erriaren agoan.

Bitartean, bere batasuna eginda zeukaten ele eta izkuntza zenbait
(Iatiña beuren artean) ilda daude liburuetan;

literatura askorekin,
baiña, ilda.

Latiñari buruz bagera, bere latinkiak (romances) bizirik diraute
oraindik errien agoetan.

Euskera "batua"

ilda jaio da;
ez bait du errietatik inork orrela itz egiten.

Alaz ere, batu baten moldeak bearrezkoak ditugu literaturaren alde-
tik.

Baiña,

Euskalkiak (giputxa, naparra, bizkaitarra, lapurtarra...) il gabe.

Euskalkiak ilko diran egunean ilko bait da Euskera berbera ere
errien agoetan.

Bi zaldi

bear ditu Euskararen gurdiak aurrera arin-arin joango bazaigu:
literatur-euskera-batu bat eta euskalkiak bizirik erriaren agoetan.

Batu bat bear da.

Goitik poderioz eta bortxaz trokelen bidez jota egin-da,
edo beetik zabalduaz... Norberak ikusi. "Guztoekin ez bait da
disputarik".

Indarkeriaren emaitzak, ordea, gure inguruan ikusiak dauzkagu:

batasuna-unifikazioa egin zan goitik aginduta.

Ogeita-amar urteen buruan lengora gatoz berriro: orduan troke-
lez bat egiña orañ bereiztera.

Indarkeriaren bidea artzea, gauzak ogeita amar urte atzeratzera bes-
terik ez da izanen. Indarrez egiten diranak burnian balioko dute
(burnian bertan ere, burniak bere giroa bear du; ez da otzik egiten;
ondo gurituta, baizik), baiña gizaseme-alabeen biotzetan ez du ba-
lio inundik ere.

Betiko leloan

sartuta gaude: persona ala elkartea?

Personari hakarrik begiratzeak

oker aundiak ekarri dizkio gizakiari;
zenbait mesede ere bai.

Elkarteari bakarrik begiratzeak

mesede aundiak dakarzki bere orrekin;
baiña, kalterik ere ez da falta.

Kin-kan gabiltza.

Justizi eta zuzentasunak eskatzen diguten erdiko puntu ori, nun
dago?

Batasuna euskalkirik gabe, zer da?

Euskera biziaren eriotza: liburutegiak ederrak.

Euskalkiak batasunik gabe?

Perfezio gutxiago, liburugintza gaitzago, jakinduri-bideak es-
tuago. Euskera bizirik, ordea.

Pelotari onak ezker-eskubiak, biak bear ditu, aurrera joango bada.
Euskerak ere batasunarekin batera euskalkien aberastasuna eta bi-
zia, biak bear.

Euskalki guztien aberastasunak batera ekarri, euskalkieri lepo-
rik moztu gabe...

Bukatzeko:

Aolku apal bat
ikastoletako aurreri buruzkoa.

Ona:

zenbait eta aurra gazteago,

orduan eta amaren izkuntza bearrezkoago. Amaren euskalkian
aurra azi bearko,

gero batasunean eziko badegu.

Laboratorio utsean

sortutako Euskera

jaio-gabe galdutako aurra da.

A. ARRINDA (1970)

IRAKURLEAI OARRA

ZER aldizkariak eta EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k ba-dauke Bilbao inguruan urteko arpidetza eskuratze-
ko erea. Etixerik etxe joaten da kobratzaillea. Baiña gauzea ez da ain erreza errietan. Orregaitik eskari au egiten dau-
tzuegu: Bialdu eiguzue txartel edo txeke bat. EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren izena ipiñi ta 2.000 pezeta di-
rala idatzita. Txartel ori sartu karta-azal baten eta gainean zuzenbidea ipiñi: EUSKERAZALEAK ALKARTEA.

Colón de Larreategi, 14, 2º, eskoia. 48001 BILBAO.

ARRUATZU' TIK IRUÑA' RA

(Batua ta euskalkiak)

Arruatzu'ko talde batek egin eban dei oraintsu EUSKERAZAINTZA'ra eta eskari bat egin eben: Euskera ikasteko bideak artzerakoan, ez dabela jakiten batua ala euskalkiren bat ikasi eta gai orreri buruz argibide batzuk nai ebezala.

Gu gertu gengozala erantzun geuntsen, baiña eskari bardiña egin eben Euskaltzaindi'ra be eta erantzuna be bardiña izan zan.

Arruatzu'n bertan izango zala batzar au uste gendun, baiña Arruatzu'ko gazte bat da Iruña'ko Uri-Ikastetxe Nagusian edo "Publikoa"n, euskeraren arduradun eta an izan mai-ingurua.

IRUÑA'KO URI-IKASTETXE NAGUSIAN

Abenduaren lenengo egunean urreratu giñan ba Iruña'ko Uri-Ikastetxe Nagusira. Euskerazaintza'tik Manu Oñatibia, Asier Etxaburua eta idazlan au izenpetzen dauana joan giñan eta Euskaltzaindi'tik Patxi Altuna, Miren Azkarate eta Xabier Amuritz.

Areto eder baten alkartu giñan eta Arruazu'ko seme dan gaztea erdian genduala jarri giñan maian seirot. Eun entzule gazte genkazan aurrean.

Gure maiaren barrenean itaun bi irakurri leikezan, biak egokiak: Bearrezkoa da euskera batua? Ba al dago gataskarik batuaren eta euskalkien artean?

Ordu bi igaro genduzan batzar edo mai-inguru aretan eta eziña da ordu bitan esandako gauzak emen agertzea, baiña aundi-maundiak beintzak agertuko doguz.

IDAZKEREAREN ARAZOA

Manu Oñatibia izan zan lenengo itz egin ebana. Onek Ortografia edo idazkerearen arazoa atera eban: Aurreko gizaldietan izan dan batasunik eza, Arana'tar Sabin'ek agertu eban idazkera-bidea,

Euskaltzaindiak lan orreri egin eutsan onartzea, 1968n. urtearen aurreko batzarrak eta Arantzazu'ko batzar ospetsua, 1978'an Bergara'n izadako batzar Nagusia eta ortik sortu zan Euskerazaintza Euskeraren Akademi barria.

Gero txandaka guztiok berba egin gendun, baiña, ez luzatzeko, gaiak aitatuko dodaz.

BATUA BEARREZKOA?

Patxi altuna'k esan eban euskera batua bearrezkoa ez dala, iñok ez dauala esaten. Mai aretan iñor ba'lego baturik ez dala bear diñoanik, jaso dagiala besoa.

Beingoan ikusi al izan ziran iru beso gora jasota. Zeintzurenak ziran esan-bearrik ez dago.

Gero Patxi'k gaiñeratu eban berak gogoan daukana ez dala gaurko batu au, zelako edo alako batu bat baiño.

GATASKA? ALA KALTEA?

Patxi altuna'k aurrean geunkan itaunari zuzen-zunenean erantzun nai izan eutson: Batuaren eta euskalkien artean gataskarik ete egoan.

Erantzuna argi emon eban: Bai, ba-dago gataska, eta zer? Gataska sortu dalako atzera egin bear ete dogu?

Erantzun oneri buruz, Martin Olazar'ek egin eban berba: Gataska badago eta zer? esan dau Patxi'k. Baiña arazoa ez da gataskarena, arazoa da batuak kalte aundia egiten dautsela euskalkiai. Gure bizkaiera kontuan dogula, etxeetan guraso ta seme-alabak alkar ezin dira ulertu, ikastoletan euskerea ikasten eta kanpoan erderaz berba egin, ikus-irratian batua baiño ez da entzuten eta gero ez dago etxean alkar-izketarako erreztaswnik... Kalte ikaragarria egin dautso Batuak Bizkai'ko euskereari eta ilteko arriskuan jarri dau gure .eus.-kalkia. Orain esango ete dau Patxi'k: Bai, Biz-

kai'ko euskereari kalte egin dautso batuak, eta zer? Ez dot uste olakorik esango dauanik!

Miren Azkarate'k erantzun eban labor, kalte orreik ba' dira be, ez dala batuaren erruz.

BATUA TA ERDEL ITZAK

Xabier Amuritz'a'k esan eban gero, berak ez leukela nai ezergaitik be euskerea sub-español edo sub-frantzes biurtzea. Gaur ikusten dan erdelitzak artzeko erretasuna eukan gogoan eta naikoa luzaro berba egin eban arazo oneri buruz.

Asier Etxaburua'k emon eban erantzuna: Batua bera zala orretarako bidea artu dauana, eta berba batzuk aitatu ebazan, "independentzia" esaterako, eta Europa'ko beste izkuntzetan jazoten dana kontuan arturik, argi azaldu eban jokera orren bide okerra. Izan be Asier' ek Europa'ko izkuntzak ikasten diardu.

Barriro erantzun eban labor Miren'ek, olako itzak euskerara sartu ba'dira ez dala ori batuaren eragiña, idazle batzuren baiño.

IKASTETXE NAGUSIAN ALA ERRIAN?

Martin'ek egin eban urrengo itzaldi labor bat: Euskerea aspaldion Ikastetxe Nagusiaren maillan aurrera doala entzun dot eta orrek auxe dakarts burura: Latiña eundak urteetan erabilli izan da Ikastetxe Nagusietan, erria beste bide batetik, erromantzeen bidetik, joiala. Baiña azkenean latiniña il egin zan eta erromantzeak bizi dira. Orixe jazoko jako gure euskereari, ikastetxe nagusietan batua erabilliko da, baiña erriak euskalkiak izango ditu bere izkera, eta euskalkiak galtzen ba'dira ikastetxe nagusietako batua be galdu egingo da urteen joanean.

Latiña ez dala erromantzeetan bizi dala esan eban. Patxi'k eta or eztabaidea sortu zan, erriko esanen eta izkuntzalarienen artean.

EUSKALKIAK ILGO BA'LITZAZ...I

Ez noa aitatu barik izten beste puntutxu bat.'

Patxi Altuna'k.onako au esan eban: Baldintza pean diñot, euskalkiak ilgo ba'litzaz be, euskereak

bizirik jarraitzen ba'dau... au da garantzirik aundiena dauana.

Martin'ek emon eutsan lenengo erantzuna: Negargarria da benetan Patxi'k esan dauana, naizta baldintzapean esan. Euskalkiak maite doguz eta eurretan dago euskerea, guk maite dogun euskerea, eta zuk ilgo ba'litzaz, orrek garrantzi gitxi leukala diñozu. Baldintzapean? bai, baiña baldintzak euren esan naia dauke. Geroago argitu jakon au Patxi'ri: Nik au esango ba'neu: Patxi il arren, munduak jarraitzen ba'dau zer? Zuk zer esango zeunke.

Bigarren erantzuna Manu'k emon eban: Euskalkiak iltzea onartzea erri-ilketa edo "jenozidio" ikaragarria onartzea da.

AMAITZEKO...

Idaz-lan onetan agertutako gaiakaz naikoa argi ikusten dala uste dot batzar aren aria nondik nora joian. Ba-dago kaseten bat gauzak zeatzago ta argiago jakin nai dabezenetzat.

Dana dala, ordu bian esandako gauzak askoz geiago dirala ezin ukatu.

Eta zer? Onuragarria izan zan batzar ori?

Egia esan, olako eztabaidetara joatea ez jako iñori atsegin izaten, baiña gauza asko argitu zirala uste dot, argibide asko emon beintzat.

Gure aldetik ez dago eragozpenik Euskaltzaindiagaz alkar-izketa egiteko, eta orretarako joan giñan euren gizarte-etxera iraillaren 8' an. Orretarako eskiñi gintzan Bergara'ko batzarrean, Manu'k itaun bateri erantzunez esan eban lez.

Beste alde batetik, eun gazte eta Iruña'n entzule ta euskeraz alkar-izketan izatea gauza pozgarria da. Bide orretatik joian an izandako beste itaun bat: Euskerazaintza'ñ gazte asko ete egozan. Asier'ek erantzun eban gazteak ba'dagozela Euskerazaintza' n eta geiago. ez izatea be ulertzekoa dala, ikaskintzako mailla guztietan batua erabilten dan aldi onetan.

Onuragarria izan dala mai-irtguru au uste dogu.

OLAZAR'tar Martin'ek

OLENTZARO

Gabonak gaur

Kaleak argi ederrez bete, denda guztiak jan-edariz eta bitxikeriz... Orra gaur eguneko gabonak: jan eta edan... eta urdalla aserik, barre egin eta zorionak alkarri emon...

Bañan, zergaitik gaude pozik?

Ez dakigu ziur zergaitik dan: Jendeak, aldizkariak, iragarkiak, irriatiak, telebistak, guztiak esaten digute poztutze-ko, irriparez egoteko, garraxi egiteko...

Ez digute esaten zergaitik.

* * *

Orain urte gutxirarte, Olentzarok etajaiotzak esaten zigten zergaitik:

Alaitu ta poztu zaiteze
gaurko gabarekin
gure Jesus onaren
etorrerarekin.

Olentzaro ez zegoen gutxigotarako:

Aditu dueneian
Jesus jaio dala
laisterka etorri da
berri ematera.

Erri txiki bat aspalditik zegoen Mesias askatzaille baten zai. Emendik oso urrutira. Azkenik ere, etorri zitzairen. Albiste ori, nekez baña seguru, guregana eldu zan. Gure biotzeko mixeri guztien askatzaille jaio da... Bazuan gure erriak zergaitik poztu, alaitu eta apaldu...

Olentzaro eta Jaiotza, biak zebiltzan batera; batzuek bereiztu nai ba'dituzte be. Alkarrekin ibilli dira gure artean.

* * *

Berri ori onera eldu aurretik, gure erria Europa'koekin batera Eguzkiaren jaiotza ospatzen ebillen. Eguzkia dago une onetan beeran, beerago ezin, eta, indar emateko, suak piztutzen ebezan, surpezteko. Enbor aundi bat ekartzen eben basotik sukaldera, lorrean, beiak aurretik zirela. Sutondoan ipintzen eben eta urte osoan iraun bear eban. Sutegia sukalde erdian egoten zan eta artaraño eruaten eben enbor ori idiek.

Su aundiak egin bear ziran Eguzkia berotzeko eta jeikitzen laguntzeko. Europa'ko erriek ekarri eben oitura ori gurera...

Kristasuna etorri zanean, Eguzkia ez dala jainkoa, erakutsi zigun eta orduan, Jesus beraren jaiotza ospatzea erabaki eben. Jesus da gure benetako eguzkia.

Leenago egiten ebezenak egiten jarraitu eben, baña Jesus'en omenez egin be eta ez eguzkiaren omenez.

Jesus jaio zan garaian ez zuten umeen Zorionik ospatzen,

eta ez zuten jakiten ziur zer egunekoak ziran. Askotan, zenbat urte zeuzkaten be ez. Loiola'ko Iñigo'k ez zekian ziur zenbat urte eukazan: bi urte gazteago zala, uste eban eta arazo ori argitzeko etorri ziran Erroma'tik Loiola'ra historigilleak... Orain bi milla urte ez zan iñor arduratu Jesus'en jaiotzaren egunekin eta irureun urte erasotuak izan eta, berreun urte beranduago oraindik, asi ziran Jesus'en jaiotzaren eguna billatu eziñik eta alan, erabaki bat artu eben, Jesus'en jaiotza eta eguzkiarena, biak, alkarrekin ospatzea.

Ez alda Jesus gure benetako eguzkia?

Zer ajola zaio egun batean ala bestean ospatzea.

Jesus'en jaiotza guretzako benetan pozgarria da eta poz ori egunen baten ospatu bear gendun.

Noiz il zan Jesus badakigu. Judutarren lenengo illargiaren 14'ean, illargi betez. Ostirala. Ori, badakigu. Urtea, gutxi gora-beera, ere bai.

Zer egunetan? Ebanjelioetatik otz zegoela atera liteke; beraz, negua edo... Baña, zer illeko egunetan jaio zan ez digute esaten. Orrek ez zeukan inportazirik bape. Eriotzak eta piztuerak zeukaten benetako garrantzia... Eta ori agertzen alegindu ziran.

Olentzaro

Jesus'en jaiotzaren gabak Gabon du izen.

Baita Olentzaro ere: Olentzaro, Olentzaro, Onentzaro, Orontzago, Orontzago... Orra gertaera batentzako ainbat izen.

Tarteka Gabon eta Olentzaro naastu egiten dira.

Gabon gabeen sutara ekartzen dan enborrari Gabon-zuzie esaten jakon Bedia eta Abadiño'n bezela beste toki geiagotan ere, bai Bizkaia'n, bai Gipuzkoa'n, bai Araba'n eta baita Naparroa'n ere.

Salvatierra'n Parrondo esaten eutson.

Olentzaro moskorra ala mozkorra?

Gabon-zuziari Olentzaro moskorra esan oi zaio.

Moskorra ez da mozkorra.

Moskorra edo mokorra arbol-enborra da.

Moskorra, berriz, ardo-geiegi zalea.

Gabon-zuzi edo Olentzaro moskorrak, Gabon eguneko enbor orrek, badau indarririk asko; eguzkia berotzea baño geiagorik. Bere gaiñetik pasatzen diran abereak bedeinkatzen ditu; enbor orren ikatzak etxearen sailleko mugarri azpitan ipintzen dira... Orrela etxeak babesa emoten deutse lur sailleeri.

Gabon-aparia

Olentzaro-moskorra sutan ipiñi ondoren, apari ederra prestatu:

OITURAK

Gabon gabian oitura degu
guziok apari ona
bixigu, legatz, makallau-saltza
bakoitzak berak alduna.

Ez da aragirik aitaten, bijili-eguna zalako eta bijili-egunetan ez zan aragirik jaten: Bixigu, legatz, makallau... Orra iru arrain ezberdiñak, irurak beruren mallatan imiñiak: Bixigua lenen, legatza ondoren eta azkenik makallaua...

Eta, postrerako, intxaur-saltza.

Ona orain irurogei urte zelan egiten zan Forua'n intxaur-saltza ori:

Lenengo intxaur-mamiak atara, gero bonbilla borobil bategaz birrindu zapi zuri baten gaiñean, sutan imiñi ura eta olio apur bategaz (kollara batzuek) eta egurtxo bategaz eragin. Iriña naastu saltza loditzeko, makallau-printza batzuek eta gozokia ugari. Egosten danean, listo mairako.

Zer ala nor da Olentzaro?

Olentzaro-moskorra gabon-zuzia (Gabon-subilla Abadiño'n) dala badakigu; baña, Olentzaro bera zer da ala nor da?

Nik usten dot, berbari berari begiratu bat emon ezkerro, gauza naiko garbi dagoela: Olen-tz-aro, aur-tz-aro eta zaar-tz-aro antzera dala.

Ortik ataraten dogu, aro bat dala, garai bat dala. OLEN aro eta garaia. OLEN eta NOEL izki berdiñagaz egiña dago: O, N, L, E. Alde batera ala bestera imiñi, NOEL edo OLEN agertuko da.

Aoskatzeko, esateko, errezago da Olen, Noel baño. Eta nik D. Manuel Lekuona zaarra'ri entzunda auxe daukot: Euskaldunak beti oitura izan dabela itzak eta berbak errezteko eta murrizteko. Jose Miguel esateko, Joxemiel esaten dogu; Francisco esateko, Praisku; pretil esateko petrilla; torcular esateko, tolare...

Noel eta Olen berdiñak ba'dira, orduan Olentzaro itza ez da izango ain zaarra...

Beste alde batetik begiraten ba'diogu, Olen-aroa gizaki biurtu dogu. Antxiñako basajaun eta sorgiñen antzera, tximiñitik beera dator zikin eta itai bat eskuan duela. Illargi berriaren itxura duen itai ori, Mari, sorgin-guztien amak ere erabiltzen du gure ipui zaarretan.

Tximiñiko zinkkeri orretatik ikazkintzara, zikiñean beintzat, ez dago orrelako aldaketa aundirik.

Sorgin-antzeko gizakia, ikazkin biurtu dogu.

Olentzaro albistari

Jose Miguel Barandiaran'ek zionez (Z. ARGIA 1972.XII.94), zenbait errietan "Kristo jaio berriaren albistea otsegitera menditik beera datorren gizona dala diote Olentzaro". Ondoren gogoratzen digu nola galdu ziran jentillak Kristautasuna etortzean eta onela jarraitzen du:

"Baña bat gelditu zan eortzi gabe eta bizirik. beera jetxi eta Kristoren jaiotzaren berri eman zuan ibarreko eta errietako jentillen artean. Auxe zan leenengo Olentzaro eta Euskal Erriko aurreneko mixiolaria.

Olentzaro joan zaigu
mendira lanera
intentzivarekin
ikatz egitera.

Aditu duenian
Jesus jaio dala
lasterka etorri da
adieraztera.

Orrela jarraitzen du gure maixu zaarrak gai oneri buruz: "Erri batzuetan albistari oni, Kristo'ren iragarleari, Mairua deitzen diote; beste batzutan, berriz, Jentilla...".

Toki batzuetako Mairuak, beste lekuetan Jentillak dira eta orrela dabilta alkarren artean naastuta gure ipui eta siniskeri zaarretan. Jentillak dira zaarrago; Mairuak gazteago. Ez dira kristau ez bat eta ez bestea, naiz eta Jentil izena kristautasunetik sortu.

Kristau egingabekoak ziran jentillak. Kristautasuna uri aundietara zabaldu zan eta gero txikietara eta azkenik mendietako baserrietara. Oiek ziran Jentillak edo "pagani" latinez, "pago"etan bizi ziranak...

Olentzaro ardo-edale mozkorra

Aldaketa moskorretik mozkorrera, geiegi ez zekien baitek egingo zuela. Donosti aldekoa seguru asko. Mokorra ardo-zale gizaki bat egin dute. Eta, aldaketa orretatik sortu ainbat eta ainbat bertso:

Olentzaro begi gorri
nun arrapatu dek arrai ori
Zurriolako arkaitzetan
bart arratseko amaiketari.

Orra, orra, gure Olentzaro
pipa ortzian duela eserita dago...

Olentzaro guria
ezin degu ase
bakarrik jan dizkigu
amar txerri gazte.

Saiaski ta solomo
makiña bat este...

Erri zaarra gera eta oiturak gordetzen iaioak; baserrietako lana izan da. Gaur gure baserri asko pikutara joan dira eta eten aundia gertatzen ari da egunetik egunera... Laister ez degu gure aurrekoen antzik ere izango... Baña, ondo edo gaizki, Krisutautasuna gorde degu orain artean urte askotan eta gure onerako. Segi dezagun aurrerantz ere bide ortatik

Alaitu ta poztu gaitezen
gaurko gabaarekin
gure Jesus onaren etorrerarekin.

ARRINDA 'TAR ANES
Deba'n Abendua 1994.

AUTESKUNDEEN ONDOREAN NERE BURUAREKIN IZKETAN

– Agur, Nere Buru maitea. Zerbait esan nai al daustak?

– Bai, Bixente, bai. Azkeneko egun auetan iri zerbait esan nairik amorratzen aurkitzen nintzoan. Bai al dakik zer? Auteskundeotan sortu jakukala izkanbillarik aski. Ikusi al dituk autaketa oien emaitzak?

– Bai. Ikusi joazat. Baiñan zenbaki oiek irakurtzean ni ez nok batere arritu. Ez nok, ezta, larritu.

– Ez dok ordea ikusten, ene Bixente maite orrek, Lege-Batzarra ain zatiturik gelditzen dalako, Jaurlaritza sendo bat eratzea, izugarri gauza zailla gertatuko jakula? Izango jok Ardantza'k prakak bete lan, tximiño-kabi biurtu jauskuen Batzar ortatik zerbait dotore atera aal izateko !

– Ez nok orregaitik ere ezer askorik arritzen. Euzkadi'ren-Lege-Batzarreko Jaunik geienak Euzkadi'ren etsaiak izateak bai, larritasun miña sortzen jaustak orrek, baiñan arritu, ez. Ez nok batere orregaitik arritu. Ez nijuan ba ezer geiagorik itxaroten! Izan ere, nola abertzaletasunik itxaron abertzaletasunik erein ez ba' dok. Iñozo aundia aiz, Nere buru laztan ori, auteskunde auetako emaitzetaz arritu ba'aiz.

– Zer diok, Bixente? Ainzuzen eusko-alderdi abertzale guztiek abertzaletasunaren alde oiuka ibilli dozak- eta!

– Bai, baiña azkeneko egun auetan bakarrik. Eta ez alper gaiztoan. Abertzaletasunaren ereintza ez bait dok auteskunde-aurreko-egun urri batzuetako lana, eta askoz gu-

txiago autarki batzuk irabazteko egiten dan oiuketa beroa. Orrela urten dozak gauzak. Auteskunde auetatik urten jakuan Lege-Batzarra, batzar zintzoa dok, legezkoa, izan bear leuken bezalakoa.

– Ez dok ba esan Euzkadi'ren etsai dituken españolistez beterik jagokela?

– Bai. Eta orrexegaitik dok ainzuzen zintzoa, legezkoa, eta egokia. Lege-Batzar bat Erriaren ispillua izaten dok. Gure Lege-Batzarra orrelakoa ba' dok, gure Erria ere orrelakoa dokelako dok: Idegi jaiguzan noizbait begiak! Euzkadi, Euzkadi'ren etsaia dok. Euzkadi, Españi'ren maitale dok. Euskotarrak Euzkadi'ren askatasunaren etsai eta Españi'ren mendeko izatearen aldeko dozak. Eспаñolistak!

– Ikaragarritzko gauzak esaten ari aiz, Bixente.

– Ikaragarriak, izugarriak, bildurgarriak, erioagarriak..., baiñan egiak. Auteskunde auetatik urten jakuken emaitza ikusi besterik ez dok, egia esaten ari nokela ikusteko. Españizaleek gora egin jauskuek nabarmenki, eta Euzkadizaleek beera. Eta nabarmenki beera, auek ere. Zergaitik orrenbeste poztu jakuzakela uste dok Españi'ko izparringi, irrati eta telebista guztiak auteskunde auetako zenbakiak ezagutzean? Ez dautsek gure arteko "Mundo", "Diario de Navarra", "Correo Español" eta "Diario Vasco"ri begiraldi bat emon?

– Bai. Baiñan, naiz oso-oso gutxi, EAJ'k gora egin jok?

ERRIGINTZA

– Bai. Eta besteek beera. Eta espanyizaleek gora. Ni ez nok Alderdi-gizona. Ni, lendabizi kristaua nok. Gero, euskalduna. Gero abertzalea. Gero... Alderdi-ikertzaillea. Geroago begiratzen jautset ba Alderdiei, nere Kristautasunaren, euskalduntasunaren eta abertzaletasunaren onerako egokiena iruditzen jatekan Alderdiari nere uste ona emateko. Eta, egia esan, Alderdi abertzale guztiekin naiagok asarre, baita betidandik nerea bezala aukeraturik zeukatenerakin ere.

– Zergaitik?

Ba Alderdi abertzaleek erria euskotartzea aspaldiz gero azturik jaukekalako. Goi-mailletako politikara jo jabek, bee-mailletakoa ez jakiat norentzat utzita. Zaillagoa bait dok au! Eta ez bestea bezain emankorra! Baiña bai bestea baiño millaka aldiz bearrezkoagoa. Benetan bearrezkoa dan bakarra!

Alderdi abertzaleetan, politikalaririk garbienek ere, -bai bait dozak or ere, beste Alderdi guztietan lez, ardi-larruz jantzitako otso-kumeak-, agintaritza lortzera jotzen jabek, agintaritza orren azpian bizi doken erriko jendearen oldozkera euskotartzeaz aztuta. Ez dok ori bidea. Erri bateko politikaren mailla guztietan, gauzarik garrantzitsuena erriko jende xea bait dok: politikagintza ororako politikalariek aukeratu bear jozaken ERRITAR JENDE XEA.

– Baiñan... Euzkadi'ren ondasunak egoki erabiltzea ere garrantzi aundiko bearkizuna dok.

– Bai. Ez gaitezen ordea iñozoak izan. Euzkadi'ko diruak eta aberastasun-iturriak egoki erabilliko leukezak Jauregi'k ere. Eta Angita'k. Ainzuzen au izan dok, España'ko potilikalarien artean, -orain arteko politikari espanyiar guztien artean-, zintzoenik mintzatu jakukena: "Guk, -esan jok-, España "konfederazio" bat biurtu nai dogu. Naita alkar-

tzen diran Errialdez osotua. Ta Errialde oietako batek Konfederaziotik irtenda Laterri yare biurtu nai ba' du, guk ez diogu eragozpenik ipiñiko".

Bapo! Angita. Gizadi-Gegearen araura eta Elizaren Dotriñaren araura itzegin dok. Alare... Barkatu eidak, Angita..., i komunista aiz, eta ez nok fidatzen. Komunistok "egia" eta "zuzena", une bakoitzean konbeni jatzuenari esaten bait dautsazue.

– Bidetik irten aiz, Bixente.

– Bai. Eta banetorrek osterera nere lengo il-dora. Neri ez jaustak ajolik, gaur Lendakaritzan, Lege-Batzarrean, Aldundietan edo Udaletan auk egotea edo beste oiek egotea. Emendik ogeitabost urtera Agintaritzako mailla oietan Euzkadi' ren-Askatasun-Osoaren-zale dozaken abertzaleak egotea zaidak benetan ajola. Ni abertzale osoa nok, Euzkadi bere yaretasun osora iritxita, Europa'ren altzoan Laterri lez sarturik egotea nai duana. Ori egiñik ikustea, munduko gauzarik atsegiñena izango litzaidakek. Baiñan ulertzen duat Euzkadi'k ortara iritxi bear ba'jok abertzaleen lenen-lenen-lenen-go gauza, gaur Euzkadi'ren etsaia dan gure Erriko jendea Euzkadi'ren maitale biurtzea dokela. Eta ortarako gutxienez ogeitabosten bat urte bearrezkoak izango jabezak Eusko-Alderdi-Aberrialeek.

Ez al dok aztuko, ortarako Euzkadi'k bearrezkoak jozaken langilleak PROFETAK ditukela. Ez JERARKAK. Gaur-egun, Euzkadi'k JERARKAK ez baiña PROFETAK bear jozak baitik bat.

– Ai'zak, Bixente. Ta Araba'ko istillu ori?

– Istillu larria benetan. Naparroa'koa baiño larriagoa. Ba joat, beste egun batean ortaz zerbait idazteko gogoia.

Latiegi'tar Bixente.

ERKIAGA ALASTRA, BITOR ETA EUSEBIO (G.B.)

Zor neutsen. Urte asko joan dira lenengoak euskeraren balioa eta gure erriaren nortasuna erakutsi eustazanetik. Beste orrenbeste bigarrenak euskal idazle klasikoak, aotsez eta idatziz, eskura ekarri eustazanetik.

Joanak dira biak. Bata, Eusebio, orain dala urte bi illobiratu genduan, udabarri eguerdi baten, Begoñako Andra Mariaren elizan meza ederra bere alde eskaini ostean. Besteari, Bitor'i, orain-tsu emon dautsagu azken agurra Zurbaran bere auzoko eliza dotorean.

Bitorrengan aurkitu genduan batzuk erria izateko arrotasuna, euskalduna izateko joera eta jorkaera garbia, diktaduraren urte oker eta ankerretan. Bitor genduan, bere illetan berba egin eban abadeak egoki azaldu euskunez, gure asaba zarren enborra, izkillutan erri garaitu baten neke eta sumindurai aurre egiteko gai izan zana.

Onela ikusten genduan guk, garai aretan bere albora urreraturiko gaztetxo askok, gurea zana ezagutzeko aukerarik ez genduan. Euskal izatearen billa ibillita, bera genduan abertzaletasunaren magalean gure pausuetarako norabide zeatza.

Illeta egunean be, Bitorren adixkide batek gogoratzen eban irudi bizi a, 1937. urteko ekainaren emeretzigarren egunekoa. Bitor Erkiaga, "Itsasalde" Euzko Gudarostearen, buruzagia, komandantea, Hotel Carltoneko Lendakaritza sailan, Bilboko uria indarrez artua eukan Sanchez general frankistari aginpidea emoten.

Eusebiorena be ez da izan zelanbaitekoa. Euskeraren lantze txukuna, polita, gozotasun eta ñabardurez betea, beti be, euskalduntasunari atxikia.

Bitor eta Eusebio, alan eta guztiz be, beti tinko euren jokabideetan. Zintzo iraun eben orreetan, belaunaldi oso baten eredu eta adibide garbiak legez. Euren atzetik etorri diranak be, areen ildo eta lorratza artu eta sakindu egin bearko dabe, gurre aberriaren onerako.

Bitor Erkiaga, "Euzko Gudarostea"ren buruzagia, gure aldetik joana zaitugu. Emendik aurrera Eusebio zure anaiagaz batera, guztion gomutetan ondo irabazitako lekua dozu. Goian Bego.

Iekoa

EUSKERAZALEAK

Bazkide maitea:

Idazki onen bidez dei egiten dautsugu 1995'ko urtarri-llaren 26'an (egunean) gure erakundearen etxean arratsaldeko 8'retan izango dan oiko batzar nagusira, urrengo egitamuz:

- 1.- Leengo batzar nagusiko agiriaren irakurpen eta onespena.
- 2.- Diru-egoeraren azalpena.
- 3.- Urteko ekintzen azalpena.
- 4.- Eskacra ta itaunak.

LENDAKARIAK

EUSKERAZALEAK

Querido asociado:

Mediante la presente te convocamos a la proxima Asamblea General Ordinaria, que se celebrará el día 26 de enero de 1995 (jueves) a las 8 de la tarde en los locales de nuestra Asociación y con el consiguiente orden del día:

- 1.- Lectura y aprobación en su caso del acta de la Asamblea anterior.
- 2.- Estado de cuentas.
- 3.- Memoria de actividades.
- 4.- Ruegos y preguntas.

EL PRESIDENTE

IRAKASKINTZA EUSKERAZ ZUZENBIDE-ARLOAN

(2n EGUNA)

AURKEZPENA

Gaurko gaia, "Irakaskintza Euskeraz Eskubide Arloan" da, eta emoillea Otaegi Aizpurua tar Idoia dogu.

Gai au oso zudugarria edo interesgarria da, eta agirian ipinten dau, euskeraren gaitasuna Legeiztia azaltzeko edo irakasteko. "Euskera jalgi adi plaza-ra", aldarrikatu eban Etxepare'k, eta izan be, legeiz-tiko arlo bat euskeraz irakasten danean, gure ama euskerea plazara ataratea da, bai, sutondoko gure Errauskiñak merezi dauan erregiñaren besaulkira je-sarri-erazotea lez da.

Entzun dagoigun ba bere esatekoa donostiar ja-kintsu oneri, oso jakingarria izango dalakoan.

ZUBIRI'TAR IÑAKI

I.- SARRERA

Itzaldi au gertutzian, "eskubide" itza baiño, naiago izan det, "Zuzenbide" itza erabili, bi zioengatik. Ba-tetik, Zuzenbidearen barne, eskubideak, naiz, bete-bearrak sartuta daudelako eta bestetik jakintzaren sail onen ikasketetan (Gipuzkoan bederen) "Zuzenbide" itzak indarra artu duelako. Beraz, bi itzen adierazpe-na berbera izan arren, "Zuzenbide" itzaren zabaltasu-na ta oitura direla-ta, itzaldi onen izenburua "**Ira-kaskintza euskeraz, Zuzenbide arloan**" izango da.

II.- IRAKASLEAK:

Zuzenbide Ikastetxe nagusian, Zuzenbidea euske-raz erakutsi aal izateko, bi azterketa gainditu bearra dago.

Lendabizi, zuzenbidearen atal baten edukiñari bu-ruzko azterketa egin ondoren, euskerari buruzko beste azterketa bat egin bear da, idatziz ta aoz azaldu bear dana.

Euskerari buruzko idatzizko azterketañ, idatzi ba-ten ulerkuntza ta idatzi ori laburtzeko gaitasuna az-tertzen dira.

Aozko azterketan berriz, irakasle izateko aukera duen lagun ori jende aurrean euskera txukun batean aritzeko gai ote den aztertuko da. Azterketa au, beste lau irakasleren aurrean egingo da, oietako bat, Eus-kaltzaindiako kide delarik.

Bi azterketa auker gainditu ezker, irakasle multzo batek osatutako batzar batek, irakasle izateko asmoa duenaren "curriculum"-a ta beste ainbat merezimen-du aztertuko ditu, ala nola, lagun orrek ordurarte egin dituen lanak, masterrak, doktoradutza ikasta-roak, tesia, beste ikastaroak, e.a., eta guzti orren ara-bera, ikast-agiri bat emango zaio. Batzarrearen uste-tan, ikast-agiria naikoa baldin bada eta autagaia aproposa iruditzen baldin bazaie, irakasle izendatuko dute.

Bein izendatua izan ezker, irakasle berri orrek, alde zurretik prestaera berezi bat jaso gabe Zuzen-bidea euskeraz irakasten asi bear du. Guk, zuzenbi-dea erderaz erakusten duten irakasleak duten pres-taera ez dugun ezker, arazoak sor ditezke eskola ematean. Irakasleak ez du klaseak nola eman bear dituen ikasi, ez ikasleei, arreta jar dezaten, nola itzegin bear zaien, ezta eskola interesgarriagoa izan dadin nola erakutsi ere.

Prestaerik ez izateak, irakaslearengan, ikasleek berealaxe somatzen duten, ziurtasun uts aundia sor-tzen du. Arazo oni, irakaslearen adiñaren arazoa gai-ñean ipiñi bear zaio, geinenak, gazteak bait gera. Ira-kaslea gaztea baldin bada, eta ikasketen azkeneko bi urtetan erakusten baldin badu, ikasleek, irakaslea-renganako begirune eskasa azaltzen dute. Irakaslea zenbat eta gazteago izan, orduan eta itzal txikiagoa izaten du.

Euskerazko irakaslea izateko nai ta nai ezko urra-tsak azaldu ondoren, irakasle euskera mailla azter-tuko degu.

Zuzenbide ikastetxe nagusiko euskerako irakas-leen artean, leku guztietatik datozen irakasleak aurki ditzakegu, naiz eta geingoa, gipuzkoarra izan. Eus-kaldun auen artean, euskaldunak ta euskaldun be-riak ditugu. Nere ustetan, ikastetxe nagusian azken

motatako irakasle auek egotea, ez da batere ona, ez euskara indartzeko ezta euskara orren mailla igotzeko ere. Iritzi onen zergatia, irakasle oien euskal kutsuaren utsan datza. Orokorki, bi edo iru urtetan euskera ikasi duenak ezin izango du inoiz euskaldun bategen berba egiten duen bezela itzegin, erderaz pentsaten dutelako eta itz askoren euskerazko esanaia ezagutzen ez dutelako.

Onekin, ez dut irakasle oiek euskaldunak baiño okerragoak direla esan nai, ezberdinak direla baizik, eta nere ustetan, erakusten duten euskera ez dela batere egokia (Euskaltzaindiaren kideak ala onartu arren).

Zuzenbide Ikastetxe nagusian, euskerako gaietan erakusten den euskara, batua da eta onek, euskaldun zarren artean zailtasunak sor ditzake. Euskaldun zarrak esaterakoan, bizkaitarrak naiz gipuzkoarrak daude barne baiña, bizkaitar euskaldunak aipatu nai nituzke bereziki, auek baitira arazo geien izan ditzazketenak. Bizkaieraz itzegiten oituratuta daude, naiz eta batzuk batua ezagutu, eta klaseak batuaz ematera beartuta daude.

Gaur egun, danera, gure Ikastetxe nagusian, euskeraz erakusten dugun ogeitamairu irakasle gera eta auen adiña, ogeitabost ta berrogeitabost urte bitartekoa da. Aldi berean, zazpireun bat ikasle dagoz Zuzenbidea, euskera batuaz ikasten dutenak.

Irakasle geienek, Zuzenbidea euskeraz naiz erderaz erakutsi bear dute. Onek, erderako irakasleen aldean, ezberdintasun bat sortzen du, erderako irakasleek ez bait daude Zuzenbidea euskeraz erakusteko beartuak, baiña aldiz, kontrakoa gertatzea ez zen batere arritzekoa izango. Erderako irakasle bat gaixo jartzen bada eta erderako beste irakasleek beren bete-bearrak baldin badituzte, euskerako irakasleak Zuzenbidea erderaz erakutsi bearuko luke. Kasu berbera, euskerako irakaslearekin gertatu ezker, berak eman bearuko lituzke bere klaseak (erdaldunak ez baitu euskeraz jakin bearrik, baiña euskaldunak bai erderaz). Au adibide bat, baiña maiz gerta litekeen gauza da.

III.- IKASLEAK

Zuzenbidea euskeraz ikasten dutenen artean, irakasleen artean gertatzen den bezalaxe, mota askotako jendea dago. Geienak, ikastoletan ikasitakoak dira eta Ikastetxe nagusira iritsi baiño leen, ikasketak euskeraz egindakoak. Inoiz euskeraz idazten ikasi ez dutenak, naiz eta etxean betidanik euskeraz egin, ez

dira Zuzenbideko gaiak euskeraz egiten ausartzen. Beren ustetan, ez daude euskeraz ikasten oituratuta ta zuzenbidezko izkera oso zail egingo zaiela uste dute. Euskeraz primeran egiten dute baiña ez dituzte guk erabiltzen ditugun itz bereziak ezagutzen.

Zuzenbide Ikastetxe nagusian erakusten den euskerarekin, zenbait ikaslek, ainbat irakaslek duen arazo berbera dute, alegia, bizkaitarrak izanik, batuan ikasi bearra. Zuzenbidezko izkera zailari, oraingoan, beste zailtasun bat geitzen zaio ikasle auen kasuan eta gauza berbera gertatuko zen ikasle edota irakasle gipuzkoarrok bizkaitarrez ikasi bearuko bategu.

Bestalde, ikasle auek, oso gutxi batzuk ezik, naiz eta euskerako taldeetan egon, beaien artean, geienetan, erderaz egiten dute. Beraz, emen ere, gure gizar-tearen sail geienetan bezala, euskeraren erabilpen eskasa ageri zaigu. Asieran, euskerako taldeak sortu zirenean, ikasle asko klase autetara, gaia gaintzeko errezagoak zirelakoan joaten zen, ez euskera euskaldun guztion izkuntza bakarra delako.

Gaur egun, euskerako taldeetan ikasle ugari dago eta mailla batzutan, lenengo maillan, adibidez, euskaldunen talde berezi bat sortu dute. Beraz, leen erderakoen aldean zegoen ezberdintasuna desagertu egin da eta aldi berean, gaiak gaintzeko erreztasunak desagertu ere. Orain, zailtasuna edo erreztasuna, irakasleen arabera egongo da eta baleike, erderako taldeko irakasle bat euskerako taldekoa baino "bigunagoa" izatea.

IV.- ZUZENBIDE-IKASKETETAN ERABILTZEN DAN EUSKERA

Irakasleek erabil oi duten euskerari dagokionez, jakiña da, euskera batua sortu zen garai'tik, erri-ikastetxetan, naiz, gaitzetzeko erri-erakunde guztietan nai ta nai ez erabili bear dan izkuntza, "euskera batua" dala. Euskalkiak beraz, arras baztertuak daude. Tamalgarria bada ere, ikasle euskaldunen artean, badira Bizkaiko semeak diranak, eta "euskera batuaz" ezer ulertzen ez dutenez gero, edo ezer gutxi, ikasketak guztiak erderaz egin bear izaten dituzte.

Beste Bizkaitar batzuk "euskera batua" ikasi bear izaten dute, Zuzenbide-ikasketak burutu aal izateko. Eta ori, batzuetan, ikasgelan dauden geienak, Bizkaitarrak direlarik. Baiña ala izan gabe ere, ez da bidezkoa izkuntza bat, "batua", erdera edo bestelakoa, beste izkuntza baten gaitzetzeko ezartzea.

EUSKAL ASTEA

Guk, beti ematen diegu Bizkaiterre, azterketak, euren euskalki ederrean egiteko aukera, gaiñontzekoen parrak entzun bear baditugu ere. Errexa baita ez jakiñarentzat "purismoa" edozer gauzarekin naastea, bakoitxak bere izkuntzan ikasteko ta idazteko duen eskubidearekin adibidez. Ez da purismoaren kontua, eskubidearena ta berdintasunarena baizik. Beintzat, "euskerata", denon artean ulertzeko baldin bazan, nonbait or, baiña egia, egunero ikusten dugun egia, ez da ori. Ezta gutxiagorik ere. Parra egin ta gero, euskeraren salbatzailleen auetan batzuk, euren azterketak, gaztelaniaz egiten dituzte... eskubidea dute-ta.

Ikasleen euskeraz dagokionez, aitortu bear dan lenbiziko gauza, aiek erabiltzen duten euskeraren kaxkartasuna da. Ez danak noski, baiña bai geienak. Nik, jakin, ez dakit zergatik, baiña, gaurko gazteen-tzat, euskerak dituen itzek, esanai bakarra dute. Gaztelera edo bestelako izkuntza batetan ez, baiña euskeraz, esanai bakarra. Onek dakarrren ondorioa, garbia da; batetik, euskerak badituen, baiña ezagutzen ez dituzten itzak, uts egiten zaizkie eta utsunea bete-tezeko bidea, erderara jotzea da... "euskerata ez da naikoa-ta". Bestetik, irakasleak, euskerata bear dan bezela erabiltzen baldin badu, ikasleak ez du ezer ulertzen. Baiña, arrigarria bada ere, ikaslea ez da ulertzen ez duen edo ez dituen itz orien esanaia begiratzera joango, frantses ez edo ingeleraz egingo luke lez, iñoren begiratu gabe "ori ez da batuaz" esan ta baliabide errexagoa erabilliko du; klasera berriro etorri ez. "Campusa" aldizkariaren azken alean, euskerarako errektoreordearen itzak dira ondorengo aukak:

"Hausnarketa bat baino geiago egin beharko dugu hurrengo hilabeteotan EHU-n daramagun hizkuntza politikaz. Bi puntu nabarmendu nahi ditut hemen, hala ere: euskeraz ikasten diharduten ikasleen euskerata maila da bat, kezkatzekoa dena dudarik gabe..."

Beraz, irakaslearen lana ez da Zuzenbidea erakustea soilik, gaiñera, ikasle guztiak ulertu edo aditu bear dute berak erabiltzen duen euskerata, angoak, emengoak, dakitenak ta ezer ez dakitenak. Euskerata, bere ikasleen euskerata maillaren arabera erabilli bear izango du.

Bestalde, Zuzenbide ikasketetan, sail edo esparru asko dira aztertzeoak, bakoitxak bere esamoldeak, itzak eta esanai bereziak dituelarik. Arlo batetik bestera, esanaia aldatu egiten da. Itz aukak ez dira orain arte euskeraz esan, gaur arte ikasketak guztiak erderaz

egiten baitziren. Guk, gure arloan, errialdearteko Zuzenbidean alegia, itzak euskeratik artu izan ditugu kanpotik etorri diren esanai berriak adierazteko. Eta orrela sortu ditugu ondorengo esamolde eta itzak;

- Lege-gatazka (Conflicto de leyes)
- Lotura-puntua (Punto de conexión)
- Gatazka aldakorra (Conflicto móvil)
- Askotariko legebide (Ordenamiento complejo)
- Araua aldebitu (Bilateralizar la norma)
- Gatazka-araua (Norma de conflicto)
- Itxuraz aldebitakoa dan gatazka-araua (Norma de conflicto aparentemente bilateral).
- Legeari maula egitea (Fraude a la ley)
- Maillakatze (Calificación)
- Lotutasun (Conexidad)
- Lotura erizpide (Criterio de conexión)
- Joan-etorriko berbidalpen (Reenvío circular)
- Emaizta bideratua duen gatazka-araua (Norma de conflicto materialmente orientada)
- Jokaera arautegia (Código de conducta)
- Aukerako arau-pillaketa (Concurso alternativo de normas)

Baziren ere, leendik euskeratuak izan ziren itzak eta esamoldeak, baiña, erderatik artuak zeuden ezkerro (eta ez itzaren jatorrizko izkuntzatikan), erdera zuten eredu. Guk, gure arloan, esanaia ondo ulertu ta gero ta euskerata eredu artuz, euskeratu egin ditugu errexago ulertuak izango direlakoan. Baiña zoritxarrez, gaur-egungo ikasleentzat erderaren ereduak zailtasun gutxiago ekartzen ditu, esanaia ulertzeko lan gutxiago egin bear delako. Ikasleak orain erabiltzen dituzten itzak dira adibidez; "Tribunala", "aplikatu", "sententzia", "errekonoizitu", "ejekutatu", "nazionalitate originala" eta abar, naiz eta guk, irakasleok, "Auzitegi", "Ezarri", "Epaia", "Aintzat artu edo aintzatetsi", "Egikaritu edo betearazi", "Jatorrizko naziokotasun" eta abar gure ikasketetan esan. Zerbaitentzako al da baiña, Zuzenbidea euskeraz irakastea, erderatik datozen itzak erabilliz? Ez al da orretarako obe, Zuzenbidea erderaz irakastea eta kitto?

Astean bein, guk erakusten dugun arloaren gai bat jartzen dugu aztergai, ikasleak beren artean gai ori jorratu eta aztertu dezaten. Arrigarria bada ere, ikasleetan erdiak edo, erderaz aztertzen dute gai ori. Arazoa zeinena da orduan, euskerarena, bera bakarra naikoa ez delako gaurko irakasgai bat irakasteko ala ikaslearena, txikitatik ikasi duen euskerata naikoa ez delako, ikasleat mnotz delako?

V.- ZUZENBIDEA EUSKERAZ IRAKASTE-KO BURUTU DIREN LANAK

Ikastetxe nagusian bestelako irakasgaiak euskeraz irakasten asi ziren garaiean, nabarmena danez, ez zan ez euskeraz idatzitako eskulibururik, ez iztegi-rik ezta aldizkaririk ere ikaslearen ikasketak bear diren bezela egin aal izateko. Zuzenbidearen arloan argitara eman zen leendabiziko iztegia, UZEIk eginda-ko iztegia izan zen eta Zuzenbidean erabil oi diren itzak orokorki jasotzen ditu. Iztegi au orokorra de-nez, Zuzenbidean dauden sail ezberdiñetan erabil-zen diren itz asko euskeratu gabe geratu ziren.

Orregatik sail orietan dauden irakasleak iztegi be-zeziak egin bear izan dituzte. Errialdearteko Zuzen- bidearen arloan iztegitxo bat egin genuan, Campos katedradunak aren edukiña edo mamia gain-begiratu zuelarik.

Eskuliburuak ere euskeratu izan dira. Geienak er-deratik itzuliak eta jatorrizko liburuen laburpenak di- ra. Argitara eman diren itzulpen auek batuaz idatziak izan dira.

Azken itz moduan ta lantxo apal onetan azalduta-ko Zuzenbidearen ikasketen ezaugarriak kontutan artuz, gaur-egungo euskeraz ematen den irakasgin- tzak urrats andiak eman bear ditu mailla dotore bat lortu arte. Urrats auek, irakasleok ikasleen laguntzaz eman beariko ditugu, alde batetik, lana eginez eta bestetik, gure ogibidean erabiltzen digun euskera lantzen eta zaintzen, erderakadak aalik eta geien bazterten.

ESKUBIDEAK**OTAEGI'tar IDOIA**

Euskalerrriak ba dau ederrik
mendi, zelai errietan,
odol berezi ta buru azur
bardin gabeko itzetan;
berek ditu, alan bearrez,
sortzez arturik egitan,
lur eder oni dagozkiozan
jakituriak benetan.

Otaegitik aukera zendun
irakasteko bidea,
eguzkiak lez zabalduetako
argia kabi ontara;
zure erria, Euskalerrria,
adi daukazu begira,
egia artuz, gaizkatu dedin
euskaldunaren bizitza.

PAULIN

**IDOIA OTAEGI'ren ITZALDIA, ATZO, BIL-
BOKO EUSKAL ASTEAN****Euskerazaleak**

BILBAO. Atzo izan eben Euskerazaleak Euskal- Astearen bigarren eguneko ekiñaldia. Idoia Otaegi andereño donostiarra ta irakaslea izan zan izlaria eta Irakaskintza euskeraz eskubide-arloan izan zan be- rak artu eban gaia.

Idoia andereñoa euskereari buruz arduratuta ager- tzen dala esan euskun Zubiri'tar Iñaki'k aurkezpe- nean eta alantxe ikusi al izan gendun guztiok bere itzaldia entzundakoan. Sarritan uste izaten dogu eus- kerea etxean erabilli bear dan izkuntza dala, baiña benetan euskerea maite dogunok, beste mailla batzu- tan be erabilten dala gure izkuntza ikusi gura dogu, Ikastetxe Nagusietako maillan be bai.

Egia esan, billatzailleak euren billaketaren ondo- renak agertzeko egiten dabezan lan zeatz eta sako- nak ezin agertu leitekez euskera utsean, munduko ja- kitunak eta billaketa orren ondorenak artu bear dabe- zan geienak euskerarik ez dakielako, baiña irakas- kintzan eta euskera dakien ikasleak aurrean dauzan irakasleak, euskeraz irakatsi bear leuke. Ez da arlo- rik gatxena Eskubide arloa, baiña iztegi egoki bat osotzea ez da beti gauza erreza.

Ondo goratu eban Paulin olerkari-Bertsolariak Ikastetxe Nagusian erabilten dan euskerea bere eki- ñaldian.

Amaitzeko, egunero lez, Alkartearen lendakariak biariko gaia ta izlaria iragarri ebazan: Enrike Zabala Irakaslea da izlari eta berak artu dauan gaia "Esate ta ibilte azkarraren mundua". Gaia oso gaurkoa da eta gure Enrike'k arlo orrretan esateko asko dauz.

EUSKAL AUTESKUNDEAK: EZUSTEKO BARRIAK

Urrillaren 23'ean gabeko amar ta erdietan, gitxi gorabera, Juan M^a Atutxa kontseillariak azken emoitzak baieztatu ebazanean, keiñu ezbaridiñak ikusi eitekezan politikarien arpegietan: alai eta illunak; baiña egoera oneitan jazoten dan lez, danak baikor agertzen ziran izparkarien aurrean, gurutzbide edo kalbarioa barrutik ba joian be.

Azken auteskunde oneitan gauza batzuk baieztatu egin dira eta beste batzuk, ostera, ustebakotzat jo leikez. Edozelan be, guztien gañetik, autarki edo botoaren sakabanaketa izan dogu albiste nagusia.

Europar Legebatzarrerako egin ziran auteskundeez alderatuta, alderdi espaniñzaleak lortutako autarki edo botoen kopurua indartu egin dan bitartean, (P.P., U.A., eta, batez be, Ezker Batuarena) alderdi abertzaleena naikoa bestelakoa agertu jaku: Eusko Alderdi Jeltzaleak nagusi darrai, autarkietan gorakada txiki bat izan daualarik, baiña aldez-aurretik uste eben baiño gixiagi; Carlos Garaikoetxea'ren Eusko Alkartasunari emoitz txar-txarrak iragarten ba eutsoezan be, ez da orrerlan gertatu eta egoera latz eta baltz orretatik ondo urten duala esan leike, jarleku bat galdu arren be. Eta azkenez, H.B. alderdiak izandako berakada albiste izan dogu. Beraz, ez dago esaterik ondo dabilzanik bertoko alderdiok.

Baita be, P.S.E.-P.S.O.E.-E.E. alderdiak izan dauan porrota egundokoa izan dala aitatu bear, ezelango ezpai barik. alderdi Sozialistaren inguruan albiste izan doguzan ustelkerizko jazoerak eta barruko naste-borrasteak be, eragin aundia izan dabe euren boto-emoilleen artean, Ezker Batuari euren botua emotea naiago izan dabenak. Ortik azaldu lei, azken alderdi onen gorakada. Edozetara be, porrota itzela eta uka-eziña izan da sozialistena.

Alderdi Popularrak, bere aldetik, baieztatu dauz Europako Legebatzarrerako lortu zituan emoitzak eta baikortasunez beterik dagoz etorkizunari begira, datorren urteko Udal Auteskundeai, alegia. Eta, batez be, Dostin boturik geien lortu dauan alderdia izan ondoren. Or dauke urrezko aukerea euren gorakada sendo tinkatzeko.

Eta zer esan U.A. eta Ezker Batuari buruz?

Gorago esan dogun legez, Esker Batuak emoitz bikain ori lortu baldin ba dau, zati aundi baten, Sozialis-

tengan euren itxaropena ipiñi eta guztiz lur jota geratu diranai zor dautse; eta aditu guztiak bat datoze eretxi ontan. Orain zer egingo dauan alderdi onek, ikusi egin bearko.

Eta U.A. alderdiagaz egin dogu topo. Au dogu gure Euskalerrri maiteari agertu jakon mamua. Pablo Mosquera buru daualarik alderdi au jo ta ke jabilku Araba Euskalerritik atara gurarik, bere kideen ustez guztiz baztertuta dagolako lurralde au. Orrez gain, Euskerea, izkillo edo arma bezala erabiliz, Arabatik aldendu egin gura dau iñork ez darabilenaren aitzakiz. Buruauste larria, beraz, Araban izan eta ukatzerik ez dagona. Gogoan euki bear dogu, baita, auteskunde oneitan, Arabako errietan gauza aundirik lortu ez baldin ba eban be, Gazteizen, Arabako uriburuan, nagusi gertatu zala eta orrek zer pentsaturik emoten dau, Gazteiztar eta Arabar askoren pentsakera ordezkutzen dau-ta.

– Jaurlaritza barria, noizko?

Len esan dogu auteskunde bi oneitan, autarki edo botua oso sakabanatua izan dogula. Orren ondorioz, alderdi geiago sartu dira Ajuria Eneara eltzeko leian eta orregaitik askoz gatzago egiten dau orrek lendakari eta jaurlaritza bat autatzea.

Negoiaziañoak, alkarrizketak, alderdien arteko batzarrak egiten ari dira, baiña ez da erreza izango akordu bat lortzea. Lengo Legealdian Eusko Alderdi Jeltzaleak eta sozialistak geiengo nagusia lortu ebela, bien artean 38 jarleku, gogoratu bear dogu baiña orain, sozialisten porrota dala-ta irugarren alderdi baten bearra dabe eta or dago untzea. Nogaz egin?

Orretan dabilz, eta lerro oneik egiteko orduan, Eusko Alderdi Jeltzaleak, Alderdi sozialista eta Eusko Alkartasuna agertzen ziran Eusko Jaurlaritza barria oztzeko albiderik geienak zituen alderdiak bezala. Gogorra izango da, baiña, euren artean alde aundiak diralako.

Denborari denbora emonaz Jaurlaritza barriaren zain jarraitu bearko. Itxaronaldi onek ekarri dagiala Jaurlaritza zuzen eta sendo bat gure Euskalerrri maite onek dituan arazo ugariak konpontzeko.

**1994ngo Azillaren 14an.
MALAX-ETXEBARRIA TAR YON**

JAN KOREK GOTZAINA ETA KALE-GARBITZAILEA

Paulo VI Aita Santuak Jan Korek gotzainari Batikano'ra joateko deitu eutsanean, onek esan eban: "Zertarako joan bear dot Batikano'ra sotana ubel-moreaz jantzita, gero Bratislaba'ko kaleak garbitzeko ez badeust ezertarako balio?".

Eslobakian komunistak agindu eben bitartean Jan Korek'ek onango eginbearrak bete ebazan: esku-langile, kale-garbitzaile, alkitran upelen lepakari...

Kale-garbitzaile izan arren, gazteen artean batez ere, izen andia eukan...

1950n. urtean komunistak Txekoeslobakiaren jabe egin ziranean, ango gotzain eta abade geienak espetxean sartuak izan ziran, eta lekaime-lekaideak erbesteratuak...

Leenengo urteetako etsipena igaro eta adorea apur suspertu ziranean, espetxeetan ez egozan eleiz-gizon apurrak, ezkutuan lanean asi ziran.

Konzentrazio zelaietan urte batzuk igaro ondoren Jan Korek'ek ezkututan bizi zan gotzain baten eskuetatik abade izatea lortu eban, Roznaba'ko geisoetxe batean. Eta 27 urte ebazala gotzain egin eben...

1960n. urterarte Bratislaba'ko lantegi batean lan egin

eban, bertako lanak eta gotzain egin-bearrak biak batera eginez.

Baina gobernuaren "txibatoak" ez egozan lo, eta lastertxo espetxeratua izan zan. Zortzi urte eroan ebazan gerizpetan...

"Praga'ko udabarria" loratu zanean Jan Korek espetxetik atera eben, baina tuberkulosiak jota egoan.

Erbestera joateko gobernu barriagandik baimena artuta, Erroma'ra Paulo VI Aita Santua ikustera joan zan.

Ordurakoa da txosten onen asieran idatzitako zatia: "Zertarako sotana ubela, gero kaleak garbitzeko balio ez badeust?".

Baina, "Praga'ko udabarria" laster zimeldu eta Jan Korek ostera ere espetxean aurkitu zan.

Beronek autortzen deusku: espetxean naiz askatasunean, eguraldi onean naiz txarrean, miñetan naiz pozetan, au izan da beti nire gogo: nire senideak Fedean suspertu eta gure sinismenaren autormena danen aurrean agertzea.

Goikoetxea'tar Iñaki



URTE ZORIONTSUA
1995

GURE EGUTEGIA

- Durango'ko liburu—Azokan asi giñan gure egutegia -1995— eskintzen.
- BBK'ren laguntzaz EUSKERAZALEAK eskintzen dautzue oparixu au.
- Eskatu BBK'ren Idaztoki ta Ordeztxeetan naiz EUSKERAZALEAK' en gizarte—etxean.
- Ara zer aurkituko dozun egutegi onetako eguneroko orritxuan:
 - * Illea, urtea, joan eta joateko egunak, eguzkia ta illargia noz, egunaren izena ta zenbakia, iru urteurren, santuak eta jaiak.
 - * Kondairako jakingarriak, bertsoak, egaztien jakingarriak, euskal esaerak, munduko gauza arrigarriak, izkirimiak, zapatuetan igandeekeo biblia, jai aurreetan egunaren jakingarriak, jazokizunak eta abar.
- BBK'k eta Euskerazaleak emoten dautsuen oparia dozu, doan emoten da.
- Gure opari onegaz batera bejoakizu 1995 urterako gure zorion-agurrik beroena.

EUSKERAZALEAK

MINGORRIA ERRIA AVILA'N

Igazko udan senide batzuk ikertzeko Segobia'ko erritxu batera joan nintzan, Muño Pedro izeneko errira. An bertako gizonakaz berba egin neban eta euskaldunen lagun aurkitu nebazan, "Muño" izen ori be Euskalerritik ara abizen ori eukan gizon ospetsu batek eroana zala esan eusten.

Etixerantza bidea artu nebanean, lenengo Avila ta inguruetara sartu nintzan eta inguru orreitan euskal izena, "Mingorria", eukan erri bat aurkitu neban. Oso arduratuta geratu nintzan, izen ori nondik nora joan zeitekean lurralde aretara jakiteko gurari biziak ikututa.

Eta ona emen, gaur berton, abenduaren 10n. egunean, irakurri dodan, Patxi Uriarte'k idatzita, erantzuna. Euskeratu ta laburtu egingo dot, ZER'en irakurleak be jakin dagien eta erri polit aretara eltzen diranean euskal izena dualako egotaldi bat egin dagien, neuk egin neban lez.

Argin euskaldunak Eskorialera

1560n. urte-inguruan, II Felipe erregeak, Eskorial egiteko asmoa artu eban eta egitasmoak au iñoan: "Bizkai'tik, Gipuzkoa'tik eta Araba'tik betoz garau-arria lantzeko argiñak". Lurralde orreitakoak nai ebazan langilleak, sendoak eta garbiak zirala argin euskaldunak bae-kialako.

Toledo'ko Juan Bautista Etxegiñak itunez artu ebazan "ondo ordainduta" argin euskaldunak eta oneik euren etxeoakaz Avila'ko erri batera joan ziran, arrobirik onenak antxe egozalako.

Erri barri bat

Iru urte igaro baiño lenago, Avilla'tik urrrean, 14 Km.'ra, egoan lekuan erri barri bat sortu zan.

Erritarrak an iñok be ezagutzen ez eban izkuntza bat erabillen eta lan eta lan egin ondoren, arri landuak gurdi aundietan Eskorial'era bialtzen ebezan.

Eleiza bat, eskola bat eta plazatxu bat egin ebezan eta abestiak ugari entzuten ziran auts-arteetan, ardaoa ugari edanez, lana amaitu ondoren. Euzkadi txiki bat zan Gaztela-barruan eta ingurukoak arrituta egozan oitura ta izkuntza ez-ezagunak entzuzeaz.

Elgorria

Urte batzuk igaro-ondoren, bat-batean, irail otz baten, ama baten negar-garrazia entzun zan: Semea il jakon. Gaiso berezi batek eroan eban, gorputza gorri-gorri biurtu ondoren. Gaiso ori zabaldu eta izurri biurtu zan. Batzuk il egiten ziran, beste batzuk osatu eta guztiak arduratu.

Erregearen belarrietara eldu zan barri ori eta bereala bialdu ebazan osagilleak. Elgorri sakona zala esan eben oneik, baiña erritarrak euskaldunen izena artu eben gaisoari ezarteko: Mingorria. Olako esaldiak entzun al leikezan inguru aretan: "Mingorria dagoan lekura..."

Euskalerrira

Eskorial'eko monastegia amaitu zan. Herrera'ko Juan Etxegille ta irudigillearentzat izan ziran omenak eta euskaldunak euren errietara biurtu ziran.

An geratu zan euskal-izeana daroan erria euskaldun barik eta an dago gaur be.

Eskorial'en langille izan ziran argin euskaldunai buruz ainbat gauza dakiguz, baiña gaurkoz naiko izan bedi Mingorria ezagutzea.

OLAZAR'tar Martin'ek

AMAIRU URTE GEROAGO

JAURLARITZA BARRIA

Gure Legebiltzarrerako Urriaren 23'an egindako auteskunden emaitzak ezagutu ta gero, norbaitek esan eban bezela, alderdi ipotxak azi eta aundienetarikoa bat (PSE-EE) gitxitzea jazo zan ezkerero, Jaurларitza barria osotzeko eragozpen larregi izango ete ziran-edo ardurazko giroa sortu zan. Izan be, giro artan, asieratik alderdi guztiak ekin eben esaten EAJ'k, garaille izanik, zailtasun ugari izango ebazala.

Lenengo izketak alderdi guztiekin egin ondoren, Jaurларitza osotzeko asmoz geratu ziran alderdi biok (PSE-EE eta EA) naizta galtzaille izan-arren eta iñoiz baiño ordezkari gutxiago lortu, arro ta esketi agertzen ziran ezkerero, Ardanza jaunak argi ta garbi jakin-erazi eban artu-emonen unean norbera bere mailan, lortu dauzan autarkien arabera, maian jarriko dala eta kitu.

Alderdiak dabezan auzi artean, geienak danen auziak berberak edo antzekuak dira, naizta jadetsi ta erabagitzeko jokabide ezberdiñak erabili. Giza-eskubideak, Gizarte ongizatea, Osakidetzeta, Ekonomiari bultzatu ta lan-toki barriak sortu-araztea, indarkeria ta langabeziari aurka egiteko... nor ez da batera etorriko?

BAKOTXAK BERE

Baiña alderdi bakoitzak bere berarizko elburua dau. Alderdi abertzalea ba'da, bere aberriaren ondo-izate ta burujabetza edo askatasuna izango da aurki.

Orain mende bat dala Sabin'ek Begoña'ko Larrazabal baxetxean egindako itzaldian, zeatz-meatz esan eban zergaitik eta zertarako sortu zan EAJ eta arrezkerero, iñoiz uko egin barik, tinko ari da.

Guztietako gai edo arazoa erabiltzen ari danean, begi onez ikusi ta aintzat artzen dabez alderdi abertzaleak, baiña beren zeregiña ta elburuari jarraituz abertzaletasuna adierazi ezkerero, ori beste upeleko sagardoa da, ta orduan bai beste alderdian aurpegi illun eta mutur-zorrotz ikusten dirala: bai orixe!

EUSKERIA

Jaurларitza barria osotzean Izkuntz Politikarako Idazkaritza Nagusiaren jarduerari buruz, Administrazioako 646 langillei izendatutako euskalduntze-mailla azterketan baieztatu eza, ta ortik etorriko litzakezan ondorenak borroka gogorra izango dira lakoan nago.

Eztabaida onetan alderdiak bereala erdibitu dira: abertzale diranak eta ez diranak. Argiago adierazteko nik esango neuke euskotar abertzale alde batetik eta espaiñar abertzale bestetik. Lenengoak euskera zaintzen dabenak eta bigarrenak, ostera, aurka egiten dautsoenak.

SENDOTU?

Euskereakiko ikusi-eziñ ori ez da euskerearen berebaitako izateari gorrotoa. Gure izkuntzaren arerioak Ele-jakintza esparruan bitxi arrigarri bat dala be ondo dakie. Au dala-ta, danontzako arritze izan daiten erakus-toki baten ondo gordeta (illa jakiña!) pozik jarriko leukie.

Baiña orrezaz gaiñera, baita dakie euskerea Euskal-Erriko ezaugarri garrantziena dala, ta bera galdu-ezkerero Euskadi be ondamedira joan eta itsutuko litzakela. Beste zer barik, or dazta euren zioa edo asarre-bidea, azpi-jokoa, il arte, euskereari egiteko.

Ez dira ba arritzeoak gaur egunean komunikabideetan entzun eta irakurtzen daguzan barriak. Jaurларitza eratzeko egiten dabezan amai-bako batzar eta itzaldietan, eragozpen audiene-tarikoak euskerearen auzian doguz.

Lenago erria euskalduntzeko Euskerearen Legea onartu ebenak, orain maltzurkeriaz oztupoak jartzen ari dira lege berbera kendu edo biguntzeko, geroago ta zorrotzago jarri bearrean benetan Euskal-Erria ta euskerea maite ba'doguz.

Legeak gizonak egiñak diran ezkerero ez dira akats-bakoak eta, agertzen ba'dira, legezko da utsegiteak zuzentzea, baiña ez beren egin-bide indarra makalduz, sendotuz baiño.

INGELERA LENAGO

Gure errian PP'ko burua dan Oreja jaunak, oso-osorik eta toles gabe, euskerea ez dakiela eta ikastekoasmorik be ez dauala esan ondoren, euskalduntze egitamuan mailla "O" jarriko leukela baieztatu eban. Orrezaz gaiñera, oi danez Euskadi'tik kanpo biztantzzen dala jakiñik... Orra or ereduzko Lendakari-gai bat!


PP'ren euskerarekiko jarrera ain aurkakoa ba-da, zelakoa ete da UA'rena? Ba, esan-eziñekoa. Abagadune guztietan, eten gabe, ari da destaña ta purrustadak esaten... Azkena auxeda: Euskerea ez da Araba'ko berezko edo jatorrizko izkuntza. Astokeri aundiagorik ezin esan leike. Ikusi begie Araba'ko Toki-izen edo Toponimia deritxon jakintza.

IU-EB ondiño gure Legebiltzarrean talde barria da; baiña espaiñar izanik, bere jokabidea beste taldekidekin bat egingo dauala uste dogu.

Eta PSE-EE/PSOE? Ba, Jaurларitza osotzeko artu-emonetan, espaiñar talde artean bera bakarrik geratu dan ezkerero, leporatu bear izan dauz bestien gurarik eta or ari da, jo ta ke, euskeraren aurka. Ara nun geratu diran euren euskalduntze asmoak. Buesa jaunaren jardun-aldia ondiño gogoan dogu, baita be beren agerpena: Obe litzake ingelera ikasi euskerea baiño.

EUSKALDUN BARRIENTZAT

MARRAZKI ONETAN 6 EZBARDINTASUN DAUKAZUZ. ZEINTZUK?




2	x		+		:		=	2
x	□	x	□	x	□	+	□	□
	+		+				-	3
	+		-	5	+		=	6
+	p	+	□	+	□	--	□	□
	+				x		=	6
=	□	=	a	=	□	=	□	□
13	□	7	□	4	□	6	□	

ONDO IPINTEN
BADOZUZ
LAUKIETAN
ZENBAKI
ZUZENAK, AZKEN
ZENBAKIAK
LORTUKO DOZUZ.
EZKERRETIK ESKU-
MARA ETA GOITIK
BERA BE BAI.

®	e	9	0	.	\$z	fl	EL
9	=	z	x	E	:	+	
0	0	+	.	+	+	+	+

uuadlizy



Lotu zenbakiak eta marrazki polit bat agertuko jatzu.

KARMELE

AITA ANTON LULI, ALBANIARRA

1944n. urtean komunistak Albaniaren jabe egin ziranean, ni Shkreli'ko txauburu-parroko nintzan.

Urte t'erdi barru espetxean sartu ninduen, "komunisten aurka itz egiñez, erria zoratu "egiten" nebalako.

Skutari'ko mendietan dagoan Koplik izeneko erri txiki batetara eroan ninduen.

Nire zaintzaileak bultzakadaka gela txiki, estu batera sartu ninduen, eta atea itxi. Dana ilun ilun egoan. Eguna argitu zanean, kakaz eta zikinez betetako komun batean nengoala konturatu nintzan. Hango usain nazkagarria!

Han euki ninduen bederatzi ilabetetan gela a garbitu barik. Baina Jaunak ez ninduan bakarrik itzi. Neure ondoan egoala nabaitzen neban.

Nire gelaren gainean polizi-burua bizi zan, eta berarengana eroan ninduen. Oso txarto artu ninduan: niri belarriondokoak emonez, zaintzaile biri deitu eutsen. Oneek nire albo bietan jarri, eta pelota baten antzera, batera eta bestera jaurtiten ninduen, deadar eta biraoka ziarduen bitartean.

Konortea galdu eta lurrera jausi nintzan. Gero polizia andi bat etorri eta ostikoka asi jatan. Saietsazur bat ausi eustan. Arnasa artzean min andiak izaten nebazan.

Polizi-buruak erriaren aurka nik egindako kalte guztiak autortzeko agindu eustan. Ez neukala ezer autortu bearik, erantzun neutsan.

Orduan, belarri bietan tximistargi korronteak ipiñi eustazan. Ezin eroaneko miña zan!...

1947n. urteko gabon aurreko eguna zan. Gau otza eta euritsua.

Jantziak kenduta bilusik abe batetik eskegi ninduen... Esku eta oiñak otzez gogortu jatazan, eta

otza apur-apurka gorputz guztira zabaldu jatan... Izoztuta, gogortuta ilgo nintzala, uste neban.

Zaintzaile bat etorri, eta gori-gori berotan egoan estufa baten ondoan jarri ninduan. Pulmonia-alborengoz gaisotu barik ez dakit zelan bizi izan nintzan...

Bederatzi ilabete luzeetan nire gain etorri ziran zartadak, irainak, zigorkadak eta era guztietako nagabeak, nork eta zelan adierazo!

Zazpi urte espetxeko lanik gogorrenetan igaro ondoren, aske-libre itzi ninduen.

Skutari ondoan dagoan Lohja'ko mendietara joan nintzan nire anaiagaz bizitera. Amar urte egin nebazan an nekazari lez lurra lantzen. Ezin neban erlijioari buruzko berba bat ere egin. Ondo zainduta nengoan.

Goiz batean gobernuko poliziak etorri eta esan eusten: "Erriaren izenean, preso zagoz". Nik itandu neutsen: "Zergaitik?" Eta eurak: "Gero jakingo dozu". Eta eskuak atzean lotuta Skutari'ko espetxera eroan ninduen.

An egon nintzan bederatzi ilabete eguzkiaren argia ikusi barik gau eta eguneko ilunpetan.

Nik an entzundakoak! Negarrak, irainak, aienak, zigorkadak... Dana ilunpetan. Iru bider egon nintzan ilteko zorian... Baina Jaunak atera nau estualdi guztietatik.

Orain au bakarrik gura neuke: berrogei urte gixtiago eukitea, Albania'ko nire aberriaren alde zerbait egin aal izateko. Ba dauka gure laguntzaren bearra 50 urtetan zapalduta egon dan gure erri maiztagarri onek.

Goikoetxea'tar Iñaki'k

ARPIDEDUNAI OARRA

Adiskideok:

Aspalditxuan daukagu gure ZER'en salneurria goratu barik, baiña orain ille batzuk dirala ingiak (papelak) gorakada aundi bat izan dau eta ez daukagu salneurria goratzea baiño beste urtcnbiderik. Urtebarri egunetik aurrera urteko arpidetza 2.000 pezeta izango da eta ale bakoitza banaka 200 pezeta. Eskerrik asko zuen arrera onagaitik.

EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k



Itzau begiak une batez eta
begiratu zeure inguruari.

Eraikiñak, kaleak, aurtzaroan jolasten
zenueneko lekuak, ikastegia... Ainbat
eta ainbat gauza ez dira leengoak, ez da?
Garaiak aldatu egin dira. Ezin ezetz esan.
Aiekin batera, zuk oraindik atsegin
dozuzan gauza asko be desagertu egin dira.
Urbiltasuna, begikotasuna,
zuzeneko artu-emona... Orain egiozu so
antziñako sukursal orren argazkiari.
Eta konparatu BBK'ren egungo edozein
bulego ta sukursalekin.
Ez dira ain ezbaridiñak.
Azkenean, garrantzitsuenak
bere orretan dirauelako.
Gauza batzuk oiñarrikoak dira eta on
ondo dakigu BBK'kook.
Garaietan zear aldatu egin gara. Jakiña.
Bahia leengo berberak gara.
Zuri laguntzeko. Eta zure alegiñaz
eta geureaz onurak itzultzeko.

Betidanik.



BBK
Bilbao Bizkaia Kutxa
EZ DAGO GEIAGO ESKINTZEN DAUANIK